

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA

29/2020 Foru Agindua, abuztuaren 3koa. Onestea ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdiaren balorazio batzordeak osatzea

Foru Gobernu Kontseiluaren 252/2020 Erabakiaren bidez, ekainaren 16koa, onetsi zen ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdia.

6. artikulua honako hau ezartzen du: "Gehienez ere Balorazio Batzorde bat eratuko da diru-laguntza mota bakoitzeko. Honako hauek osatuta egongo da:

– Lehendakaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kideak: Laguntzen alorrean adituak edo profesionalak diren hiru pertsona, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendariak izendatuak, eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zerbitziburua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaritza: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren talde teknikoko pertsona bat.

Batzordea eratuta dagoela onartzeko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailako foru diputatuak batzordea eratu aurretik ebazpena emango du, eta ebazpen hori jendaurrean erakutsiko da interesa dutenek legez ezarritako inguruabarrei eta terminoei uko egiteko eskubidea egikaritu ahal izateko."

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea balorazio batzordea osatzea, honako modalitate hauetarako: "telebista eta zine proiektuak garatzeko dirulaguntzak" eta "film luzeak eta sormenezko dokumentalak ekoizteko dirulaguntzak." Batzordea honako hauek osatuko dute:

– Batzordeburua: Javier Hernando, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria.

– 1. batzordekidea: Gloria Peña, ikus-entzunezkoen ekoizpenen produktore exekutiboa eta zuzendaria.

– 2. batzordekidea: Patxi Azpillaga, ikus-entzunezko ekoizpenen UPV-EHUko irakaslea eta ikus-entzunezkoen ekoizlea.

– 3. Batzordekidea: Norma Vila, ikus-entzunezko errealizadorea eta ekoizlea.

– 4. batzordekidea: Javier Lasarte, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko nagusia.

– Idazkaria: Beatriz Álvaro, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikaria.

Bigarrena. Onestea balorazio batzordea osatzea, honako modalitate hauetarako: “film laburrak ekoizteko dirulaguntzak” eta “gidoiak idazteko dirulaguntzak”. Batzordea honako hauek osatuko dute:

– Batzordeburua: Javier Hernando, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria.

– 1. batzordekidea: Xabi Vitoria, Korterraza Festibaleko zuzendaria eta ikus-entzunezkoen ekoizlea.

– Vocal 2: Oskar Bilbao-Goioaga, idazlea, ikus-entzunezkoen ekoizlea eta errealizadorea.

– Vocal 3: Estíbaliz Alonso, UPV-EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Sailaren irakaslea eta ikus-entzunezkoen ekoizlea eta errealizadorea.

– 4. batzordekidea: Javier Lasarte, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko nagusia.

– Idazkaria: Beatriz Álvaro, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikaria.

Hirugarrena. Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 3a

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO